

Mayi Peloten

Biharko oroitzapenak

ingelesera itzultzeaz

ARRATE HIDALGO SÁNCHEZ

Euskal zientzia-fikzioaren erreferentzia dugun Mayi Peloten aitoren berri bat piztu da igaro den bosturtekoan zehar. Esan liteke euskarazko zientzia-fikzioak azkenaldian bizi izan duen *generotzearen* eragile bat dela Pelot 2016. urtean hil eta gero haren lanaren inguruan sortzen hasi zen aitortze-mugimendua –besteak beste, mahai-inguru, omenaldi, irakurle-talde eta berrargitalpenen bidez–. Hau da, Mayi Peloten fikzio *espezialistaz* (Zaldua, 1990) gain zientzia-fikzio (ZF) gisa idatzi, argitaratu eta erreseinatutako euskarazko fikzio gutxi izan dugularik, ZFaren aterkiaren azpian sartzeko prest dagoen literaturaren ugaritze txiki bat ikusten ari gara. Eta esango nuke Peloten ospe sotila dela horren lekuko garantzizuenetariko bat.

Peloten ZFaren aitortze-mugimendua horren parte nintzela, 2021ean, haren *Biharko oroitzapenak* ipuin bilduma eta eleberri laburra itzuli nituen ingelesera, ZF feminista argitaratzen duen Aqueduct Press estatubatuar argitaletxearentzat, Etxepare Institutuaren dirulaguntza baten bidez. Timmi Duchamp editorearekin hizketan, laster erabaki genuen liburua argitaletxearen Heirloom Books bildumaren barnean argitaratzea zela egokiena. Bildumaren izenak familia-jarauntsiari egiten dio erreferentzia –belaunez belaun igaro diren barazki moten haziei, hain zuzen ere–, eta gaur egungo zientzia-fikzio feministari forma eman dioten lanak biltzen ditu, gal ez daitezen, «kanonean sartzen ez diren liburuekin sarri gertatzen den bezala» (Pelot, 2022).¹

1. «[A]s works that do not make it into the canon so often are» (nire itzulpena).

Egilea eta lana

Ingelesez *Memories of Tomorrow* deitu genion liburuaren barnean, hiru mundu agertzen dira: lehenengoa, zeina hiru ipuinetan eta eleberri labur batean —«Miren», «Boga, boga», «Feed-back», «Telelabintho»— zehar garatzen baita, etorkizuneko Esqwal Herria dugu, Byorn (gaurko Baiona) hain zuzen ere, gentrifikazio-prozesu global batean murgilduta. Etorkizun horretan, egun Hego Euskal Herria deitzen diogun lurraldean, Lemoizko zentral nuklearra abian jarri eta hutsegite baten erruz lehertu egin da, eta lurralde osoa basamortu toxiko bihurtu da. Bestalde, Espainia Iranen boterearen pean izanda, eta Frantziaren gehiengoa Hirugarren Mundu Gerraren ondorioz suntsitu denez gero, euskara da iraun duen hizkuntza bakarra Esqwal Herry horretan: hizkuntza ezinbestekoa Sigma/Zigma izeneko megakorporazioa Byornen arrakastatsua izan dadin. Tekno-thriller aireko ZF politikoaren ildoan koka daitezke istorio horiek, askotan egunerokotasunaren bidez ehunduak.

Pelotek asmatutako bigarren mundua, «Plist plast» ipuin luzekoa, Berreus planeta da, Basik eta Kobol izeneko planeten artean banatzen dena, eta haren ekuatorean, urez eta sumendiz betetako lurralde batean, Basiken eta Kobolen menderatzearen eta estraktibismoaren aurkako borrokan irauten dute berreustarrek. Etorkizun urrunean kokatuta, ipuinak berreustar iraultzaile baten ihesaldiaren eta ezkutatzearen istorioa kontatzen du, Berreusen askatasunaren aldeko banakako eta auzoko ahaleginek inguratutak. Bai istorio honetan, bai azken eta

hirugarren planetan kokatutako istorioan, nabaria da Pelotek Bradburyren estetika-rekin daukan zorra, berak aitortu bezala. Hirugarren planetak, «Harremana» *novelette*koak, Daleth du izena, eta ZFko *space opera* generoari Pelotek egindako omenaldi literal batetik sortua da. *Star Wars*en moldeko lanak biltzen dira *space opera* generoan, baina Pelotek beste geruza bat gehitzen dio istorioari, Wagnerrek eskandinaviar mitologian oinarrituta idatzi zituen operetako pertsonaia eta tropoak hartuz eta espazioan kokatuz. Wotan izeneko gizon boteretsu eta espazio-bidaiaariaren ikuspuntutik, hamaika mundu arrotz eta bitxi deskubrituko ditugu, bilduma osoan aurkitu daitekeen estilo poetikoenaz gauzatuak.

Egilea, itzultzailea eta hizkuntza

Bildumak argi uzten du Mayi Pelotek hizkuntzarekin daukan harreman jolasti eta irekia. Mundu berriak sortzeko erabiltzen duen irudimena euskara erabiltzeko eta moldatzeko bere era berezira ere hedatzen da. Euskararen bitartez, Euskal Herriaren eta Euskal Herritik haratago dauden munduen etorkizunari itxura ematen dio, eta horretan datza haren originaltasunaren alde bat. Baina ez hori bakarrik —eta hau da benetan berezia iruditzen zaidana—, baizik eta euskara ere euskararen bitartez moldatzen du, neologismo anitz asmatuz (horietaz arituko naiz gero), eta estilo eliptiko eta malgu batez hizkuntzaren ertzak zabalduz. Horretaz aritu zen Itxaro Bordarekin eta Josu Landarekin izandako elkarrizketa batean (Borda & Landa, 1986):

—*Zientzia fikzioa idazteko, euskera tresna efikaza da ala moldatu behar da; hitzak asmatu eta. Nola egiten duzu zuk?*

—Dena den, hitzak asmatu behar dira. Euskaraz samurra da, hitzak errezki lotzen edo zatikatzen baitira. Prolema zera da, ulergarria izatea eta nola jakin irakurleak ulertzen duen. Gaurko egunean hitz egokia atxeman behar da, zeina poemetan zailena dela uste dudana. Ez da euskaraz beste mintzairetan baino zailagoa, ingelesez, grekaz, alemanieraz bezain erreza da.

Pelotengandik gertu sumatzen dut neurere burua haren elkarriketak irakurtzean. Ez bakarrik berarekin guztiz bat natorrela euskara espekulazio tresna gisa ikustean. Berari gertatu zitzaion bezala, Bradbury irakurtzean ohartu nintzen ni ZFaren indar poetikoaz, eta handik urte batzuetara Le Guinen idazkera gardenak berretsi zidan hori. Berari bezala, euskaldun berria deitu diezadakete niri ere –izan ere, neure buruari oraindik holaxe deitzen diot–, ofizialki hiru urte nituelarik ikastetxean eta senide batzuekin euskaraz egiten hasi nintzen arren. «Euskaldun zahar / euskaldun berri» ardatzaren funtsa zalantzan jartzen da, gero eta gehiago, eta arrazoi sendoenatik, gainera. Bordarekin izandako beste elkarriketa batean, honela zioen Pelotek: «Hogeita hemezortzi urte ditut, eta hogeita hiru urtetan euskaraz ikasi nuen: egin kalkulak, ez naiz hain berria. Zahartzen ari naizen euskalduna naiz...» (Borda, 1985). Nire kasuan, ingelesezko ZFtik etorrira, euskarazko ZFn murgiltzean berreskuratu nuen euskara, denbora luzean euskaraz egin barik eman eta gero. Mayi Pelot (eta haren lana deskubritu nahi izan zuen Zarauzko

ZF kuir-feminista taldea) erabakigarria izan zen prozesu horretan.

Hortaz, zirkulu bat osatuko banu bezala sentitu dut euskaratik ingelesera Mayi Peloten zientzia-fikzioa itzultzea. Testuan murgildu ahala, ia hitzez hitz ipuinak bihitu ahala, askatasun-ariketa itzela aurkitu dut Peloten fikzioan. Askatasunez itzultzeko baimena emango balit bezala landu dut nire testua, jaiotzatikoak ez zaizkidan bi hizkuntzaren artean saltoka, han-hemen esanahiak desestaltzen, opakutasuna igartzen zidaten hitzen poesia aprobetxatzen, mundua ikusteko era horretan sumatzen, baita dudana etxe sendoa eraikitzen ere. Hitzak sortzeko Peloten trebetasuna maiz aipatu da beraren lanari buruz aritzean, eta, are gehiago, haren euskaldunberritasun horrekin lotu izan da. Ana Moralesek hala jaso zuen, AnsibleFesten Itxaro Bordak esandakoaren bidez: «Agian horregatik jo zuen zientzia-fikziora, beharbada horregatik idatz zitzakeen fantasia kutsuko istorioak (euskaldun zaharrekin baino errazkiago). Izan ere, duela 30 urte esaten zen euskara metaliko edo tekniko hura –batua– zientzia-fikziozko euskara bat zela, orduan bazuen bere zientzia-fikzio kutsua» (Morales, 2018). Hiztegitik ari-tua, eta latinean eta grezieren aditua, Pelot bere garaikideak erabiltzen ari ziren euskararen aldean bestelako eredu baten bila zebilen, Bordaren arabera. Euskara hori aurkitu zuen berezkoa sortzean, zeinean beraren munduek oinarria eduki zezaketen.

Peloten neologismoak

Peloten neologismoekin lan egitean, hiru motatan banatu nituen. Mota bakoitzaren

deskribapen eta adibideak emango ditut segidan, nire itzulpenak gehituta:

1. Pelot idazten ari zen garaian asmatu gabe zeuden teknologiak izendatzeko neologismoak:

Arroltzmatiko (lurretik 50 cm-ra airatzen den ibilgailu gurpilgabea): *ovamobile* itzuli nuen.

Eskutel (eskumuturrean erabiltzen den irrati antzeko komunikagailua): *handphone* itzuli nuen.

Entzunkariak (belarrietan sartu eta pantailan dagoen irakasleari entzuteko gailuak): *aurals* erabili nuen.

Telikastola (banako ikasgeladun eskola, zeinean ikasleek 3D bideoen bidez ikasten duten, isolaturik. Ezaguna egiten zaizue?): birtualtasunari erreferentzia eginez, *V-school* itzultzea erabaki nuen.

Ardihuntz (ardiatzen eta ahuntzaren arteko hibridoa, esnea ematen duena): beste bezero batentzat Etiopiako nekazaritzari buruzko txostenak zuzentzetik ezagutzen nuen *shoat* hitza, ingelesezko *sheep* eta *goat* hitzen fusioa, bi abere moten abeltzaintza bateratuari buruz aritzeko erabiltzen dena. Aukera ezin hobea irudititu zitzaidan.

2. Pelot idazten ari zen garaian asmatuak ziren baina euskarazko terminorik ez zeukaten teknologiak izendatzeko neologismoak: oso kasu berezia aurkitu nuen *berigan* hitzean. Nik dakidala, Pelotek asmatu zuen, gaur egun «igogailu» deitzen diogun gailurako. *Be-* hori «behera» hitzarekin ziurgabetasunez lotu arren, *-igan* zatia argi zegoen. Kasu horietan,

ingelesezko hitz onartua erabili nuen, Peloten asmoa teknologia arruntarentzat euskarazko hitza sortzea zelako, eta ez arrotasuna adieraztea.

3. Azkenik, baditugu adibide bakar batzuk 1980ko hamarkadan existitzen ziren hitz teknikoena, bereziki informatikarekin lotuak. Ordenagailuen testuinguruan *lingua franca* den ingeleza erabili beharrean, euskarazko hitz arruntak eman zituen Pelotek hitz horien ordain. Ez nintzen berehala horretaz ohartu. Adibidez, etorkizun hurbilean kokatutako istorioetan, pertsonaiek ordenagailuaren teklatura (*klabera*) erabiltzen dute datuak sartu eta bilatzeko. Horretarako, *Lot/buka* tekla (*atzola*) sakatzen dute. *Lot* hitza «lotu» ekintzarekin erlazionatu nuen. *Buka*, bestetik, «moztu» edo «itzali» esanahiekin. Handik, *on/off* kontzeptura iritsi nintzen. Artikulu hau prestatzean eta «Telelabintoa» berrirakurtzean konturatu nintzen On/Off botoia baino gehiago, Enter teklaren funtziotik gertuago dagoela *Lot/bukaren* erabilera. Zorionez, Peloten pentsaera islatu nahian, *Link/Break* erabili nuen itzulpenean.

Halako kontuetarako, Itxaro Bordaren laguntza baliotsua izan nuen, eta, «Plist plast» ipuinaren kasuan, Ana Moralesena ere bai, 2019an egin nuen ipuin horren gaztelarazko itzulpena zuzendu baitzuen. Zalantzak argitzen zizkidan bitartean, Bordak kontatu zidan 1980ko hamarkadan ez zegoela oraindik euskarazko hiztegi teknikorik. Beraz, Pelot euskarazko hitzak elkartzeko atseginaz baliatu zen, ez gailu berriak asmatzeko bakarrik, baizik eta baita ingele-

setik euskarara sartzen ari ziren hitz guztien aurrean aukera interesgarriak emateko ere. Hots, euskarazko etorkizun bat euskaraz irudikatzeko.

Nire aburuz, horixe da Peloten ekarpen nagusietako bat: euskararen zalutasuna erabili izana etorkizun posibleak marrazteko; ezagutzen dugunari zapo, usain, itxura berriak emateko. Ez zituen beti etorkizun desiragarriak irudikatu, baina mundu desi-

ragarriak badaude Peloten istorioetan, baita etorkizun desiragarriekin amets egiten duten mundu liluragarriak ere. Pelotek, zientzia-fikzioaren indar poetiko hori jaso, eta bere ahots originalaren bidez erabat eraldatuta jarieraz zuen, euskararen barnean aske.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- BORDA, Itxaro (1985). «Mayi Peloten “Biharko oroitzapenak...”», *Argia*. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1081/mayi-peloten-biharko-oroitzapenak>.
- BORDA, Itxaro & Josu LANDA (1986). «Mayi Pelotekin solasean: “Gure planeta mendurarendako ezagunegia delako idazten dut zientzia fikzioa”» *Susa* 19. <https://andima.armiarma.eus/susa/susa1718.htm>.
- MORALES, Ana (2018) «ANSIBLEFEST 2018: Hamaika mundu sortzeko jaio gara I», *etzi.pm*. <https://etzi.pm/read-offline/8920/ansiblefest-2018-hamaika-mundu-sortzeko-jaio-gara-i.print> (Kontsulta: 2023-3-20).
- PELOT, Mayi (2022). *Memories of Tomorrow* [itzul. Arrate Hidalgo], Seattle: Aqueduct Press.
- ZALDUA, Iban (1990). «Zenbait gogoeta zientzia-fikzioaren inguruan», *Hegats* 32, Donostia: Euskal Idazleen Elkartea, 75. or.

Resumen

La obra de Mayi Pelot y las diversas iniciativas desarrolladas en su memoria han sido esenciales en el reciente movimiento de impulso de la publicación y lectura del género de la ciencia ficción en euskera, del que formó parte la traducción al inglés de su obra *Biharko oroitzapenak* (*Memories of Tomorrow*). La autora de este artículo, que es a la vez responsable de la traducción de la mencionada colección de relatos, describe los mundos imaginados por Pelot y analiza su uso del euskera (estilo y vocabulario) junto con las soluciones adoptadas en el proceso de traducción. Se traza un paralelismo entre la relación de Pelot con el euskera y la de la propia traductora, se manifiesta la discrepancia en torno al concepto de “euskaldun berri”, y se acredita que Pelot creó una lengua flexible y original para imaginar futuros posibles en euskera.

Résumé

L'œuvre de Mayi Pelot ainsi que les nombreuses initiatives en sa mémoire qui ont émergé récemment ont été essentielles dans le mouvement récent pour promouvoir la publication et la lecture de la science-fiction en basque, en tant que genre littéraire. Ma traduction anglaise de son œuvre *Biharko oroitzapenak* (*Memories of Tomorrow*) a fait partie de ce mouvement. Le présent article se penche sur ce travail, et plus particulièrement sur l'utilisation qu'a fait Pelot de la langue basque (le style et le lexique) pour inventer et créer ses propres mondes, accompagné de mes choix de traduction. En établissant des parallèles entre la relation de Pelot avec la langue basque et la mienne, et en rendant compte du désaccord qui existe autour du concept d'«euskaldun berri», je confirme ici que Pelot a créé une langue flexible et originale à travers laquelle imaginer des futurs possibles en langue basque.

Abstract

Mayi Pelot's work and the various initiatives in her memory have been essential in the recent movement promoting the publication and reading of Basque-language science fiction as a genre. The English translation of her work *Biharko oroitzapenak* was part of this movement. The article looks into this work, and particularly into Pelot's use of Basque (style and vocabulary) to imagine and create her worlds, accompanied by my translation decisions. Tracing parallels between Pelot's and my own relationship with Basque, and mentioning the dissent around the concept of «euskaldun berri», I argue that Pelot created a flexible, original language through which to imagine possible futures in Basque.